

PRENTSA OHARRA

Euskal Udaletarako EUDELen proposamena azaroaren 10eko Oroimenaren Eguna

Bilbo, 2015eko azaroak 3. EUDEL Euskadiko Udaletarako Elkarteak gutuna bidali du udal guztietara. Gutunean, jarraian datorren **oinarrizko proposamena** egin da, azaroaren 10eko Oroimenaren Egunari dagokiona.

1. Azaroaren 10ean, **12:00etan, Udalbatzaren elkarretaratzea egitea, 15 minutukoa (isilik)**, udaletxearen aurrean edo udalerrian ekitaldi mota honetarako ohikoena den tokian.
2. Ekitaldi honetarako, **Udalean ahalik eta adostasun handiena** lortzea udalerri bakoitzean.
3. Elkarretaratzea aldez aurretik iragartzea, eta **gonbit egitea herritarrei**, baita udalerriko **tokiko erakunde eta eragile sozialen ordezkari** ere.

Proposamen hau egitean, **udal-autonomia** eta udal bakoitzak oroimenaren arloan egindako **ibilbidea errespetatu dira**, eta, adostasunerako ekimen unitario moduan, lehenengo urratsa izan nahi du helburu den elkarbizitzarako bidean aurrera egiteko orduan.

Lehenetsi beharreko irizpidea udal-mailan **ahalik eta adostasun handiena lortzea** izango da, eta 2013ko martxoaren 14an lau talde parlamentario handien babesaz **Eusko Legebiltzarrean onartutako akordioaren** izpiritua hartu da erreferentziazat: *“Bakea eta bizikidetzaren lortzeko, beharrezkoa da indarkeriaren bidegabekeria aitortzea, egindako mina onartzea eta biktimak duintzea; izan ere, biktima guztiek merezi dute egia, justizia eta konponbidea lortzeko eskubidea.”*